

## ELKANO BROWNING CREAM

Elkano Browning Cream erritmo jostagarri eta kutsakorren sinonimo da, Blue Note disketxe handiaren urte oparoenetako Hammond organoaren *combo* handiak gogora ekartzen dituen soinuen islada. Hiruko honen izaera multikultural eta nomadaren ikuspegitik personalizatu eta gaurkotutako soinua. Mikel Azpiroz musikari euskaldunak (Lau Behi, Parafunk, Fermin Muguruza, The Waifs Australiarrak...) koordinatzen duen proiektuak, Hammond organoaren hirukoaren oinarrizko formatoan du funtsa, bere esentzia *groove*-aren zentzurik garbienean oinarrituz: erritmika dantzagarrian. Franck Mantegari baterajole Paristarraren (Alpha Blondy, Saint Germain, Massive Attack...) *drumming* exotikoarekin batera, John Lee Hooker eta Taj Mahal bezalako maisuak goraiatu duten Matt Harding gitarajole eta abeslari iparamerikarraren kadentzia melodikoak gauzatzen du estilo berezia.

2005ean ezagutu zuten elkar eta AEBetan hasi ziren elkarrekin jotzen, ondoren hiru musikari hauek Shangaiko (Txina) "Cotton Club"-ean abiatu zuten beraien bidaia eta beraien izena zeraman lehen diskoa grabatu zuten, *Elkano Browning Cream* (Mamusik, 2.006) *groove* desberdinen bilduma bitxia, melodia elegante eta sofistikatuak dituen bilduma, gustoz eta esku onez, mendebaldeko musika, eragin afrikar, latino zein ekialdekoekin uztartuz. Europako, AEBetako Japongo, Koreako, Txinako eta Hegoamerikako jaialdi eta klubetatik dantzatu zuten diskoa.

Eta orain bidaiarekin jarraitzeko, bigarren diskoa kaleratzen dute *Elkano Browning Cream 2* (Mamusik, 2.010), erritmoaren adar hipnotikoa oraindik gehiago azpimarratuz eta desberdintasunaren edertasuna aldarrikatzen duen eklektizismoa erakutsiz. Diskoa Mikel Laboaren ahotsak irekitzen du *Sugaar* kantan. Kantautore abangoardista eta berritzailea Azpirozen lehen erreferente garrantzitsuetako bat izan zen, ekaitzari irekitzen dio atea, Hammond-ean pasodoble ohiartzunarekin eta djembearen erredobleekin. Ugandako Jimmy Kayihura poetaren hitzek *World State* urbanoan "begi handi eder" batzuen oinazea salatzen dute. **Yodi** gogoraerrazean Harding-en akorde *country*-ak erritmo afrikar bilakatzen dira. The Waifs talde Australiarrak jartzen dio ahotsa *Osito Blues*-en *groove* sakonari. *Far East Sweet*-en ekialdeko eskalak *bossa*-ren erritmoan kulunkatzen dira. *Herb Tree* baikorrak, Harding-ek eta Brooklyn-New Yorkeko kaleetan bizi den Tony Ebanks musikari Jamaikarrak elkarrekin idatzitako kantak, Peter Tosh-en "Legalize It"-en estiloan zabaltzen du mezua. Preston Foster-ena den eta Muddy Waters-ek ezagun egin zuen *I Got My Mojo Working* berbisatzen da, tempo astunean. Leloetan lehertzen den energia gordea transmitituz berriz ere The Waifs-en ahotsetan. *Morgan* jazz latino jostagarrian barna irristatzen da. *Euphoria*-k aldiz indar zeremoniala banatzen du. Eta Elkano Browning Cream-en bigarren abentura hau *Osito Bossa*-k ixten du *bossa* eta *drum and bass*-en erritmoan.

Mikel Azpiroz arduratu da ekoizpen artistikoaz, grabazioaz eta nahasketez. Lana Orem, Utah, AEB eta Donostian egin da Mamusiken estudio mugikorrarekin. Michael Fossenkemper-ek egin du masterizazioa Turtle Tone Studios-en, NYC, AEB.

David Navascués-ek egin du azalaren diseinua eta grafismoa.

Elkano Browning Cream-en bi lanak Mamusik zigiluarekin argitaratu dira, Azpirozek erabateko independentzia artistikotik bere lanak argitaratu ahal izateko sortu zuen zigiluarekin. Banaketa fisikoa Resistencia-k egiten du eta banaketa digitala berriz ohiko plataformek (CD Baby, iTunes, CD Universe, Spotify...).

### ***Elkano Browning Cream:***

Matt Harding (New York): gitarra, ahotsa

Franck Mantegari (Paris): bateria, perkusioa

Mikel Azpiroz (Donostia-): B3 Hammond organoa, rhodes, wurlitzer, sintetizadoreak

Info:

[www.elkanobrowningcream.com](http://www.elkanobrowningcream.com) [www.myspace.com/elkanobrowningcream](http://www.myspace.com/elkanobrowningcream) [www.mamusik.net](http://www.mamusik.net)

**Booking/Promo/Label/Band:** [contact@elkanobrowningcream.com](mailto:contact@elkanobrowningcream.com) Tel: 656 719650

**Banaketa:** [resistencia@resistencia.es](mailto:resistencia@resistencia.es) Tel: +34 902 900 545